

PERPAUS ADJETIBALAK ALBISTEETAKO TESTUETAN

Asier Larrinaga Larrazabal

Baliabide sintaktiko ugari ditu euskarak. Uste daitekeenaren kontra, perpaus adjetibalak egiteko ere hainbat morfema eskaintzen ditu hizkuntzak baina ez dira denak maila eta zeregin guztietan erabilgarri. Kasuan kasuko hizkerak mugapenen bat edo beste ezarriko die tresna sintaktiko horiei. Hemen irrati-telebistetako hizkera informatiboan morfema adjetibalez baliatzeko orduan eragina duten faktoreak aztertuko dira.

Sarrera

Kazetaritza euskaldunean erabiliko hizkerari buruzko gogoeta izan nahi du artikulu honek, baina ez Kazetaritza hitzak mugatzen duen esparrua osorik hartuta, esparru hori zabalegia da eta. Kazetaritza idatzia alde batera utzirik, beraz, ondoren datorrenaren haria irati-telebistetako hizkeraren inguruan bilduko da.

Jorratuko den gaia ondo zehaztuta gera dadin, Pello Esnalek erabili duen "aho-idatzizko" abizena ipiniko zaio Kazetaritza kontzeptuari. Horren bidez agerterazi nahi da arlo honek duen ezaugarriarik behinena, hots, mezua aurretik sortzen dela idatziz eta geroago ahoz zabaldurik. Mezu hori beraz, idatziz prestatzen bada ere, ahozko komunikazioak ezarritako arauak betez antolatu behar da entzuleak ondo har eta uler dezan.

Baina jakina da edozein esaldi ez dela egoki gertatzen belarriz jaso eta zuzen ulertua izateko. Albistegi, erreportaje eta halakoen helburua informazioa helaraztea dela kontutan hartuz gero, bistakoa da hauetan perpaus argi eta naturalak erabili behar direla, benetako hizketan botatzen diren esaldietatik ahalik eta hurbilen ibiltzea komeni dela. Horregatik interesgarria litzateke kazetariaren baliabide sintaktikoei zenbait oharpen egitea, era horretan aho-idatzizko hizkerara nola hurbil daitekeen erakusteko.

Esaldi adjetibalei buruzko azterketa honek, horrenbestez, aho-idatzizko

estiloaren ildo urratzen lagundu nahi du. Horretarako, arau zorrotzik eman ordez, eguneroko lanean agertu diren akats, zalantza eta trabak konpontzeko erabili diren irizpide eta moduak erakutsiko dira. Asmo horrekin telebistetako albistegietatik jaso diren benetako adibideak ipiniko dira eredu gisa, kasuren batean esaldiak asmatuak izango diren arren.

Perpaus adjetibalak

Erlatiboko perpausak ere deituak. Adjetiboaren antzera berauen funtzioa izen bati laguntzea da, izen hori nolabait zehaztea. Erlatibokoak zehazten duen izenari "antezedente" esango zaio hemen, ez deitura hori zeharo egokia izateagatik, baizik eta ezaguna eta errazagoa delako.

Antezedentea perpaus nagusiko elementua da. Era berean, erlatiboko perpaus txertatua beste izen-sintagma bat dago, nahiz sintagma hori agerikoa ez izan. Ezkutaturik egoteagatik adjetibalaren izen-sintagma horri "isileko" deituko zaio. Antezedentea eta isilekoa erreferentziakide dira; biek pertsona, ideia edo gauza bera aipatzen dute, hau izanik perpaus adjetibalen bigarren ezaugarri funtsezkoa. Biek aipatzen duten zer hori "izen-ardatza" izango da.

Ondoko adibidean hiru kontzeptu horiek argiago utzi nahi dira. Horretarako mutil jakin bati buruz hurrengo gauza biak esango dira.

01a *Mutil batek baloia utzi dizue.*

01b *Mutil horri eskerrak eman behar dizkiozue.*

Lehen esaldia adjetibal bihurtuz eta bigarrean txertaturik, beste hau esan daiteke.

01c *Baloia utzi dizuen mutilari eskerrak eman behar dizkiozue.*

Hasierako perpaus biak gogoraturik, erraz ikus daiteke 01c honetan isilekoa MUTILnork dela, eta, antezedentea MUTILnori. Mintzagai den mutila, esaldiaren izen-ardatza da. Perpaus adjetibalen artean murrizgarriak eta azalpenezkoak bereizi dira. Murrizgarriek antezedentea mugatu egiten dute. Berebiziko informazioa ematen dute antezedentea zeri dagokion bereiz eta ezagut dadin.

02. *Autobusean ikusi dugun emakumea nire kaleko dendaria da.*

Emakume guztien artetik, adjetibal murrizgarriak bat mugatu du (autobusean ikusi duguna), "emakume" hitzak kasu horretan zein pertsonaren erreferentzia egiten duen zehaztuz.

Azalpenezkoen funtzioa, ostera, datu gehigarriak ematea da, lehenagotik erreferentzia ezaguna duen antezedenteari buruz dena delako informazioa eskuratzea. Azalpenezkoak komen artean joan ohi dira.

03. *Aita Santuak, zein Ameriketatik etorri berria den, opor-egun batzuk hartzeko asmoa azaldu du.*

Kasu honetan ez dago antezedentea (Aita Santua) zehazterik, berez zehatza eta erreferentzia mugatukoa baita.

Hemen erlatiboko perpausaren zeregina, antezedenteari buruzko datu osagarriren bat jakinaraztea da.

Morfema adjetibalak

a. Guztien artean arruntean -(E)N da. Perpaus txertatuko aditz laguntzaileari erantsirik eta antezedentearen aurrean ageri da adjetibal murrizgarriak egiteko.

04. *Athleticek Sportingen aurka jokatuko duen partidua bostetan hasiko da.*

Ezaguna edota ez oso erreferentzia zehatzekoa bada, ezaba daiteke antezedentea egitura honetatik, eta orduan berorren deklinabide-atzizkia -(E)N morfemari itsasten zaio zuzenean.

05. *Manifestazioan parte hartu dutenei eraso die poliziak.*

Adjetibal azalpenezkoen kasuan, antezedentearen ostean doa erlatiboko perpausa, deklinabide-atzizkia -(E)N menderagailuari atxikita.

06. *Erich Honecker-ek, AEDko presidente izan zenak, bere kontrako judizio latzari egin behar dio aurre orain.*

Irrati-telebistetako hizkera informatiboan horrelakorik agertuko ez den arren, komeni da gogoratzea izen-ardatza lehen edo bigarren pertsona denean, antezedentea lehen edo bigarren mailako erakuslea dela hurrenez hurren.

07. *Erre eta erre zabiltzan horrek, ez al dakizu tabakoak kalte egiten dizula?*

Adjetibal negatiboetan "ez" adberbioa aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean kokaturik doa.

08a* *Errentaren aitorpena ez dutenentzat egin 15era arteko epe berria ipini da.*

Oso gutxitan agertu da akats hau albisteen testuak prestatzean, inoiz antezedentea eliditurik duen 08a bezalako perpausen batean, baina zuzena 08b dela gogoratu behar da.

08b *Errentaren aitorpena egin ez dutenentzat 15era arteko epe berria ipini da.*

b. Aditz-partizipioari erantsita doaz -TAKO eta -(R)IKO partikulak. Gorago aipatu den morfema orde z dezakete, beti ere bi baldintza betez gero: lehenik, aditz menderatua aspektu burutuan egotea, eta gainera, bigarrenez, isilekoa perpaus txertatuaren barruan kasu absolutuan joatea. Morfema horiekin honelako adjetibal murrizgarriak egin daitezke.

09. *Gobernuak harturiko neurriek sindikatuen gaitzespena jaso dute.*

10. *EEBBetatik joandako enbaxadoreak ez du ezer konpondu Bosnia-HertzeGovinan.*

Bi hauen aldakitzat jo daiteke PARTIZIPIO-ANTEZEDENTE egitura, alde bakarra -TAKO edo -(R)IKO morfemen elisioa baita.

11. *Gaur eguerdian jaso tenperaturak honakoak dira.*

Dirudienez, modu honetan antolatuturiko perpaus menderatuak ezin dira negatiboan ipini.

c. Aurrekoez gain euskarak badu baliabide malguagorik, ZEIN eta NON hitzak hain zuzen. Hitzok antezedentearen ostean joan ohi dira azalpenezko esaldi txertatua sartuz. Aditz menderatuak BAIT- edo -(E)N morfema hartu behar du. Deklinabideari dagokionez, ZEIN mugagabea doa beti, erreferentzia singularra nahiz plurala izan dezakeen arren.

12. *Sarajevok, non neguko Joko Olinpikoak egin baitziren duela urte batzuk, eraso ugari jasan ditu aspaldion.*

13. *Gobernuaren dekretuak, zeini sindikatuek "dekretazo" esaten dioten, indarrean segituko du.*

d. Beste ezer gabe, BAIT- berak ere egin ditzake perpaus adjetibal azalpenezkoak aditz menderatuari itsatsiz.

14. *Errekan gorpu bat agertu da bart, ez baitu inolako nortasun-agiririk.*

Aho-idatzizko adjetibalak

Aurreko atalean erakutsi da bide ugari dituela euskarak izen bati perpaus adjetibala eransteko. Baina ezaguna denez, erabiltzeko orduan baliabideen sorta zabala murriztu egiten da, ez baitira tresna sintaktiko guztiak egoki gertatzen hizkera jakin baten beharrei erantzuteko. Aho-idatzizko hizkeraren kasuan, belarrizko ulermena erraztu egiten duten egiturak dira aproposenak. Lehenago ere esanik dagoen bezala, ahozko komunikazioan antolatzen diren esaldietatik hurbilen dabilizan baliabideetara jotzea komeni da.

Horregatik orain, menderagailu adjetibalen azterketari ekingo zaio. Azterketa honetan erakutsi nahi dira zeintzu oztopo aurkitu zaizkien menderagailu horiei, eta noski, oztopo horiek gainditzeko eguneroko lanean probatu eta aukeratu diren bideak.

a. -(E)N atzizkia oso erabilera zabalekoa izan arren, autore gehienek mugapen bat ezartzen diote: isilekoak, perpausaren azaleko egituraren ezkutaturik doanak, aditz menderatuan oihartzuna izan behar duela. Horrek esan nahi du izen-sintagma hori absolutu, ergatibo edo datiboan deklinaturik egotea. Ondoko adibi-deetan isilekoa zein kasutan doan erakutsi da esaldiaren ostean kako artean sartuz, eta azpimarraren bidez aditz menderatuan nola isladatzen den nabariarazi da.

15. *Korrida antolatu duten enpresariak oso haserre agertu dira zezen-plaza itxi dleako.*
(ENPRESARInork)

16. *Guadalajaran gertatu zen uholdearen ondorioz ehundaka milioi galdu dira nekazaritzan.*
(UHOLDEnor).

17. *Abortatzea debekatu dioten emakumearekin bildu da feministen elkarteko ordezkaria.*
(EMAKUMEnori)

Emandako erregelaren arabera, azpiko beste esaldi hauek eta antzekoak ez dira gramatikalak.

18a* *Alderdi guztiek parte hartu duten bilera emaitza positiborik gabe amaitu da.*

19a* *Egunkari guztiek dakarte lehen orrialdean neskatoa hil zen atentatua.*

20a* *Jaser Arafat zihonan abioiak istripu bat izan zuen Libiako basamortuan.*

21* *Leherketa gertatu zen lekua poliziaz inguraturik dago.*

Gisa horretako perpausak ez-gramatikalak izateaz gain, badute bestelako problemarik ahozko komunikazioan, alegia, belarrirako oso bitxi, gogor eta askotan ulergaitz egiten direla. Baina honelakoak, isilekoa inesiboan daukatenak bereziki, behin eta berriz agertzen dira testu informatiboak sortzean, eta horrenbestez goiko arauaren mugapena gainditzeko moduren bat eskaini beharko zaio kazetariari.

Erarik errazena delako arau horretara makurtzea litzateke esaldia nola edo hala moldatuz. Honetara, 18a eta 19a perpausak ondoko moduan geratuko lirateke.

18b *Alderdi guztien parte hartzea izan duen bilera emaitza positiborik gabe amaitu da.*

19b *Egunkari guztiek dakarte lehen orrialdean neskatoa hil zuen atentatua.*

Prozedura honi, baina, ezin zaio kasu guztietan jarraitu. Esan gabe doa, gainera, askotan esaldi astun eta ez oso naturalak sortera zten dituela, 18b horren adibide.

b. Bigarren konponbide bat, -(E)N morfemaren lekuan -(E)NEKO aldakiaz baliatzea litzateke. Luis Villasantek toki- eta denbora-perpausetan erabiltzen dela dio. Azken batean, izen-ardatzat erreferentzia lokal edo tenporaleko izena duten perpaus adjetibal soilak baino ez dira Villasantek aipatzen dituen esaldi-mota horiek. Hona hemen Adolfo Arejitaren eta Axularren adibide bana.

22. *Argi indarrrik ez egoaneko aldi haretan kriseiluak geunkazan.*

23. *Zeren erraiten du legeak, zuhaitz bat (...) ebakitzen dutenean (...) zure izanen dela, eta ez erori-rik datzaneko lurraren iabearen.*

Beste adibide periodistikoago bat.

24. *Berlineko horma eraitsi zuteneko egunak garai berria markatu du historian.*

Ipinitako hiruretan iger daitekeenez, isilekoa inesiboan doa. Hauen ereduari jarraituz 20a eta 21a perpausak honela eman daitezke.

20b *Jaser Arafat zihoaneko abioiak istripu bat izan zuen Libiako basamortuan.*

21b *Leherketa gertatu zeneko lekua poliziaz inguraturik dago.*

Oso tresna baliagarria da, emaniko adibideetan ikus daitekeen bezala, -(E)NEKO morfema. Bihurrikeria sintaktikoetara jo gabe, perpaus natural, argi eta ulerterrazak eraten ditu. Beste bi hauek bezalakoak.

25. *Urrejola senar-emazteak bizi zireneko etxeak kalte handiak izan zituen lur-jausiaren eraginez.*

26. *Bilera egingo duteneko lekua eta ordua isilpean gorde dituzte.*

c. Orain arte esandakoa laburbilduz, isilekoa soilik kasu gramatikalen batean edo inesiboan doala antola daitezke erlatiboko perpausak -(E)N menderagailuaren bidez. Esparru mugatu eta estu honen aurrean oso interesgarri litzateke Beñat Oiharzabalen tesia kontutan hartzea: erlatibagintzan morfologiaren baldintzapenek parte hartzen badute, hala ere, ez dutela muga gaindiezinik ematen. Isilekoa kasu gramatikaletan

duten esaldiak eratzeari "erlatibakuntza gramatikalizatu" deitzen dio Oiharzabalek, eta berak esaten duenez hitzunek ahal beste erlatibakuntza gramatikalizatu erabiltzeko joera dute. Baina hortik kanpo hainbat adibide aurkitu ditu Oiharzabalek, bai ahozko usarioan, bai literaturan ere. Joera ez bide da arau, eta horretara, hitzen arteko lotura logikoak eta testuinguruak zilegi egiten dituzte hiztunarentzat honelako perpausak.

27. *Morroiz zauden ugazaba.*

28. *Ni bizi naizen etxea urruti dago.*

Bigarren adibide hori Patxi Goenagarena da. Autore honek antzeko arrazonamendua darabil, "bizi" eta "etxe" elkarrekin aurkituz gero "etxean bizi" edo gisa horretako erlazioa antzeman daitekeela esanez. Erlazio horretatik letorke 28 erraz ulertzea.

Zalantza barik, baliabide hau oso mesedegarria zaio literaturari, eta oro har estilo idatziari, baina ia ez da inoiz agertu honetara jotzeko beharra albisteak ematean.

29a *Ministroak biltzekoak ziren gelan lehergailu bat aurkitu du poliziak.*

Azken perpaus honetan berehala antzeman daiteke "gelan bildu" lotura logikoa, eta horretaz gain isilekoa eta antezedentea kasu berean doazela, 29a oso esaldi argi eta ulergarria da. Baina 29b ez da inola ere ilunagoa.

29b *Ministroak biltzekoak zireneko gelan lehergailu bat aurkitu du poliziak.*

Lehenago ere esan den bezala, notizietako testuetan sarrien azaldutako perpausak isilekoa inesiboan edo kasu gramatikalen batean dutenak izan dira. Gomendagarria dirudi, beraz, 28. eta 29. bezalako perpausetan -(E)NEKO atzizkira jotzeak. Gainerako kasuetan 27. moduko ere duari jarraitu ahal zaio, kontutan harturik aipaturiko harreman logikoak eta testuinguruak ulermen egokirako duten garrantzia.

d. Lehen mailako erreminta sintaktiko zaizkio kazetariari -TAKO eta -(R)IKO atzizkiak. Nork bere tradizioari eutsi diolarik, iparraldetik datozen berrietan PARTIZIPIO-ANTEZEDENTE egituraz ere baliatzen dira.

Menderagailu horiek oso maiz azaltzen dira albisteetan, aho-idatzizko testuari arintasuna eta malgutasuna ematen baitiote, baina batzuetan metatu egiten dira esaldi berean bizpahiru ipiniz. Orduan testua ilun gertatzen da, aditz jokabako gehiegi elkartzen badira erreferentziak nahasteko arriskua dago eta. Komeni da, beraz, -TAKO/-(R)IKO neurritz erabiltzea. Beste batzuetan, gainera, kakofoniaren problema dago. "Prestatutako Taldea" edo "gertatutako eztanda" sitagmek nahikoa txarto ematen dute belarrira. Baliteke elkarren ondoan hiru -KO edo gehiago suertatzea ere. Halako kasuetan hobe da esaldia berregitea, horrelako hots-multzoko bitxiak saihestea, entzulea nekarazi eta komunikazioa tratatu egiten dutelako.

30. *Oposizioko alderdiek prestatutako osoko emendak kontutan hartuko direla esan du gobernuko bozeramaleak. (?)*

e. Hainbatek susmo txarra hartzen diete oraindino ZEIN eta NON izenorde erlatiboei. Sasoi batean gaitzesgarritzat jo izan da bi horiek perpaus adjetibaletan erabiltzea, eta ondorioz hor geratu da morfema horien itzuri ibiltzeko joera. Baina gaur egun hizkuntza idatziak dituen premiek autore klasikoen eredura joarazi diete idazle, itzultzaile eta abarrei, menderagailu horiek berebiziko baliabide baitira itxurako testuak josi eta taiutzeko.

Nekez aurki daiteke, ordea, ZEIN eta NON ahozkoan. Albisteetan ere 12. eta 13. bezalakorik ez da inoiz agertu, nahiago baita hainbeste informazio horren modu labur eta jasoan ematea baino, esaldi gehiago baina

naturalagoetan adieraztea. Luis Villasantek dio hauek hizkuntza idatziaren berezko tresna direla. Kutsu literario nabaria darie, eta beraz badirudi ez dutela lekurik ahozkotik hur dabilen aho-idatzizko hizkera honetan.

f. Indar handiz sartu da gaur eguneko euskara idatzian BAIT-aurrizkia, eta hortik hizkuntza mintzatura ere pasatu da. Funtzio ugari bete ditzake, berak bakarrik edo beste morfemaren batek lagunduta. Gorago erakutsi da nola sartzen dituen adjetibal azalpenezkoak bakarrik doanean, baina horrelako perpausik ez da inoiz azaldu albisteetan. Halaz ere baliabiderik erabilienetarikoa da BAIT- berriak emateko, baina ez adjetibal azalpenezkoetan baizik eta kausal azalpenezkoetan. Oso hurbil daude adiera biak, eta antza denez gaur eguneko usuarioak bigarrena hautetsi du hegoaldean behintzat.

Bibliografia:

AREJITA, A; *Euskal Joskera*, 327, Leopoldo Zugaza, Durango, 1978.

AREJITA, A; ETXEBARRIA, JM; IRAZOLA, JM; URIARTE, J;
Bizkaierazko Joskera, 138, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu
Nagusia, Gasteiz 1989.

ESNAL, P; "Ahozko Euskaratik kazetaritzako Euskarara" (in *Euskal
Kazetarien Jardunaldiak*), 27-40, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-
Zerbitzu Nagusia, Gasteiz 1991.

GOENAGA, P; *Gramatika bideetan*, 399, Erein, Donostia, 1980.

OIHARZABAL, B; "Erlatibakuntza: Perpaus Erlatiboaren Egitura; Izen
Erlatibatuaren Betekizuna Haren Barnean" (in *Euskal Sintaxiaren
Zenbait Arazo*), 131-153, Euskal Herriko Unibertsitatearen
Argitarapen-Zerbitzua, Donostia 1985.

VILLASANTE, L; *Sintaxis de la Oración compuesta* (Colección Elizalde, 6),
245, Editorial Franciscana Aranzazu, Oñati 1979.